


Rolf Steinhilper Doktoreak Mondragon Unibertsitatea bisitatuko du datorren Asteazkenean, Azaroak 30ean

2016/11/29

Steinhilper Doktorea Alemaniako Bayreuth Unibertsitateko kidea eta berrekoizpenean aditua da eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoarekin kolaboratzen du REMACOMPIND proiektuan.

Proiektu hau IHOBek bultzatutako Ekoberrikuntza proiektuen baitan kokatzen da. Bertan Goi Eskola Politeknikoko lau ikerketa lerrok eta CEGASak hartzen dute parte Steinhilper Doktorea eta Orkestraren laguntzarekin.

REMACOMPIND proiektuaren helburua da berrekoizpen aktibitateen garapenerako aukerak aztertzea, hala nola EAEn esparru horretan I+G+i-rako dauden aukerak identifikatzea. Horretarako, piezak errekuperatzeko plan baterako merkatu-nitxoak identifikatu eta definituko dira. Plan horrek osagarri, produktu eta ekipo industrialen remanufaktura azkarra eta ekonomikoa ahalmenu behar du, beti ere egungo araudiak betetzen direla bermatuz.



Rolf Steinhilper Doktorea